

ONDO IBILLI



(NERE ADISKIDE ON ELOY ARRILLAGA-RI)

Laguntasunez elkarturikan
 biyok denbora luzian
 doai aundiyaz ibilli gaituk
 zori on bete betian;
 orrengatik gaur uste ez nubela
 ik esan dirakenian
 ichasoz joan bear dekela
 illan ogei ta bostian,
 atsekabe ta miñeritua
 gelditu nauk ondorian
 zerbaiten falta banu bezela
 biotz barren barrenian.
 Jakinduriaz soilla nauk eta
 nere laburtasunian
 ezin nezakek nai detan gauzik
 jarri emen paperian;
 baño gizonen sentimantuak
 etzeudek jakindurian,
 askotan dituk itz politenak
 gezurrik aundiyanian,
 urre fiñ ona ez dek billatzen
 lurmenaren ašalian;
 ¿zer itz anpuluk esan lezakek
 malkocho batek añian?

Ez ala fede, nere biotzak
 iñoiz miñ darukanian
 kanpora lañu garratz pisuak
 bota nayaz dagonian,
 i bezelaše urrun aldera
 lagun bat dijoanian,
 ¿nola mintzatu, išill išillik
 ezpada negar antsian....
 Amabost egun luzena dala
 Tolosatik apartian
 arkituko aiz gora ta bera
 olatu pitsen gañian;
 goyan... zerua bakar bakarrik,
 itsas ondokaya bian,
 euskal-mendi bat iñondik ez ta
 marboillen jirak aurrian;
 i berriz anche beste geyokin
 urdinkera zabalian
 pentsamentuba eta biotza
 jarririk emen.... lurrian.
 Kanta gozo ta leguna franko
 esango dituk bidian
 euskal-erriyaz oroiturikan
 illunabar ta goizian.

Bidaje on bat egin zak eta
 urte guchi barrunbian
 etorri ari Tolos'aldera
 oparotasun aundian;
 au osatzeko ezago noski
 ogei urten bearrian,
 etorkizuna badaukak, Eloy,
 etzaik ezer falta iri an.

.

¡Agur eta agur! lagun maitia
 agur au oroimenian
 euki zak leyal nik bezelaŕe
 elkar ikusi artian;
 Agur! ordañak bigal nazkiak
 ifarraren egalian:
 jo! zer atsegín izango detan
 ire kantak aditzián!

EMETERIO ARRESE.

Tolosan, 1897-ko Illbeltzaren 24-ian.

UN BIENAVENTURADO



Ha llegado un gran rebaño procedente de la sierra del Aralar, compuesto de 180 ovejas, instalándose en las inmediaciones del barrio de Aguinaga, próximo á esta ciudad.

Ha sido conducido por dos pastores, el uno joven y el otro de avanzada edad, que tiene cerca de sesenta años y toda su vida ha seguido esa profesión.

En el campo, y apoyado en su *makilla*, se pasa el día haciendo calceta, y es muy curioso oírle decir que no ha viajado ni en tren, ni en vehículo alguno; que su descansada vida, sólo ha sido turbada por las dos guerras civiles; no sabe ni le importa quién reina y gobierna, ni si tenemos guerra con Cuba ni Filipinas.

Sólo lamenta que hayamos perdido nuestra *Lege zarra*.

